

# KINKINEN ERTSURAK

Zati bakarra

Egilleak:

Kinkin.  
Pethan eta Mattin hunen langilleak.  
Dardara eta Gogorra, gizon zaharrak.  
Bohemia... gizon adinekoa.

Estradan: Erdian potret maxin egiazko edo gezurrezko bat, hiru zangoko baten gainean ohial beltzez estalia. Mahin baten gainean potret andana bat, bai eta murruietan dilindan. Hiru kadera.

## I

Kinkin suitik. Pethan eta Mattin,  
mainean jarrita potret arrañatzen

**KINKIN:** (*Kexu*) Joaitan ezpazera, makhilla ukhaldika igorriko zaitut... Au hi emendik kanporat... (*Norbait pusatuko balau lez egiten du eta atheratzen da*).

## II

Mattin eta Pethan, potret arrañatzen...

**MATTIN:** Norbait jin dok soa galdeka...

**PETHAN:** Nola dakik ba...?

**MATTIN:** Nausia kexu delakotz.

**PETHAN:** Artuendun norbait.

**MATTIN:** Hemen etheratzen dena gaitik izanen dituk berriz ere zorrak.

**PETHAN:** Eztik bururik gure nausiak...

**MATTIN:** Ez sosik ere.

**PETHAN:** Eztek au sosa egiteko tokia... Ez, sosa egiteko, potret athelierrak behar dik egon pasai handia den toki baten, denen bistan, ez au bezela nehork ikhusten eztuen lekuan.

**MATTIN:** Eta nola eztiok erraiten...??

**PETHAN:** Ez. Behar diat sal arasi.

**MATTIN:** Sal-arasi...?? Nork erosteko..??

**PETHAN:** Nik.

**MATTIN:** Hik...!!!

**PETHAN:** Bai...

**MATTIN:** Errekara joanen hiz. Faillita eginen dok berehala...

**PETHAN:** Edo ez...

**MATTIN:** Eta nola esarrikok saltzera???

**PETHAN:** Nola.. ? Makhurrik gabeko jukutri zerbaiten bidez.

**MATTIN:** Eztiat konprenitzen...

**PETHAN:** Behar dlat norbaitzukin mintzatu, istruzoneak emaiteko, zer eta nola egin behar duten erraiteko, gure nausia, magazin au saltzera esartzeko.

**MATTIN:** (*Zerbeit ahitu balu lez burua alxata*) Ago ixilik. Or dek nausia.

## II

Mattin, Pethan eta Kinkin

**KINKIN:** (*Kexu*) (*Finki*) Jin da nehor???

**PETHAN:** Ez, Jauna...

**KINKIN:** (*Kexu*). Ez behar ere... Au ezta soportatzen ahal... (*Finki*) Orai ere beste zerga berri bat... A-rnar li-be-ra-ko tin-bre bat behar dutela atheratzen diren potret bakhoitzak. Ahitzen duzue? (*Arat-onaka estradan*)...

**PETHAN:** Soberazko dela uzte dot, jauna...

**MATTIN:** Xuxen dela uste dot nik.

**KINKIN:** Xuxen... (*Atheratzen du zakeletik papel molxo bat eta... Eztakizue ontza nik ze zerga pagatzen dodan... (Effeullatzen ditu banazka)*). Alokazion familial, chifre d'affaires, sekurite sozial, inpos sur revenu, eta botiera guziak... Gainerat berrikitan emendatuak etxe-errenta, eletrika, ura, gasa.. Lehengoakin ezin bizi eta horai zerga berriak... Ez eta ez.. Ez berririk eta ez zaharrik... utziko dut ofizioa eta kitu... (*Estradan harat hunat... kexu.*)

**MATTIN:** (*Suititzen da*) Parkatu Jauna...

**KINKIN:** Zu ixilik...

**MATTIN:** (*Eskuan artzen ditu potret batzuk*) Potret hunek eroan behar ditut...

**KINKIN:** (*Kexu*) Egizu nahi duzuna... Emen irabasten dena gaitlk eztu balio lanean artzea... Ni athelierra izten noia...

**MATTIN:** Egiten ahal duzu nahi duzuna...

**KINKIN:** Nahi dutana...???

**MATTIN:** Zu zera manatzen duzuna...

**KINKIN:** Manatu...??

**MATTIN:** Zu zira nausia...

**KINKIN:** Edo azkenengo muthila...

**MATTIN:** Ene oponionea...

**KINKIN:** Zuk eztuzu opinionik egiteko deroxorik...

**MATTIN:** Zuk ere ez Jauna, eni afrunturik egiteko.

**KINKIN:** Zoiaz mille debruin joan behar duzun lekurat...

**MATTIN:** (*Beretzat*) hau hok glzon mokhorra... (*Biltzen ditu potretak papel baten eta preparatzen da atheratzeko.*) (*Pethaneri belarrirako*) Bakarrik uzten diat gizon basa hunekin... Enkas, zerbait egiten badizkik aski duk ohiu bat egitea... (*Atheratzen da*).

**KINKIN:** (*Jartzen da eta ari da papel batzuk leitzen*).

**PETHAN:** (*Beretzat*) Afferak ontza dira. (*Eskuiak frotatzen ditu*) Iluntzea gabe athelierra enea da...

**KINKIN:** (*Jaikitzen da, lehiotik begiratzen du, jarri eta jeikentzen... promenari ari da estradan.. arrestatzen da...*)

## III

Kinkin eta Pethan

**PETHAN:** (*Goxoki*) Heri zira, Jauna...?

**KINKIN:** (*Idor*) Midikua zira??

**PETHAN:** Ez... baina.

**KINKIN:** (*Idor*) Edo merexala...??

**PETHAN:** Ez, jauna... ez...

**KINKIN:** Ba, orduan egon ixilik...

**PETHAN:** Parkatu Jauna, baina... nahi nuke zerbait ixileko agertu.

**KINKIN:** (*Bereala, estonatu baizen bezala*) Zer...?

**PETHAN:** Nahi nuke ene konturat lanean ari...  
**KINKIN:** Zure konturat...???  
**PETHAN:** Bai jauna, saltzeko den potret athelier bat erosi nahi nuke.  
**KINKIN:** (*estonatu*) Po-tret athe-li-er bat e-ro-si na-hi du-zu-la??  
**PETHAN:** Bai, jauna, bai; potret athelier bat.  
**KINKIN:** Eztuzu zergak pagatzekorik atheratzen... bereala faillita eginen duzu...  
**PETHAN:** Zure konseillu on batzukin behar bada atherako niz...  
**KINKIN:** Nik konsilluak eman...?? Ez, ez... Nik nahiago nuke ene potret athelier zikin au  
saldute banuke..  
**PETHAN:** Bai...?? Ba, nik erosiko dautzut...  
**KINKIN:** Eeeh. Zuk e--ro-si...??  
**PETHAN:** Ba, Ba...  
**KINKIN:** Jostetan ari zira...???  
**PETHAN:** Ez... Ez... Saltzeko baduzu nik erosiko dautzut...  
**KINKIN:** Bon... Mintzatuko gira sarri...  
**PETHAN:** Beraz, sarri-arte... Behar det komisione bat egin.

(*Papel batzuk artu eta atheratzen da*)

#### IV

Kinkin bakarrik

**KINKIN:** (*Estradan promen*). Erosiko duela erran du... bai eta saldu... Bai, bai... Saduko  
diozkat nik ene affera guzia... kobratzeko dudazan artuen, pagatzeko dudazan  
soa eta sosik gabe jiten dirian ene klient guziakin...

#### V

Kinkin eta Bohemia

**BOHEMIA:** (*Joiten du athea*) Sartzen ahal niz, Jauna...  
**KINKIN:** (*Idor*) Zer???  
**BOHEMIA:** Sartzen ahal nizen...?? (*Sartzen da*)  
**KINKIN:** (*Bohemia ikhusita arritzen da eta estrada erdian esku biak burura eroanda*). Jainko  
maitea...!! Bohemia bat... (*Bohemiari*) (*Idor*) Zer nahi zinuen...???  
**BOHEMIA:** Ez deus bat, jauna... Ez deuz bat...  
**KINKIN:** (*Samur*) Ez deusik ezta emen saltzen... Ea bertzerik nahi ezpaduzu aski duzu  
emendik fueratzea...  
**BOHEMIA:** Eztu balio samurtzea, Jauna... Eztizut sosik galdetuko..  
**KINKIN:** Ez nik emanen ere...  
**BOHEMIA:** (*Jartzen da*) Jarririk mintzatuko gira...  
**KINKIN:** Presatua niz, zurekin denporea galtzeko...  
**BOHEMIA:** Utzi egidazu atsa hartzen, jauna...  
**KINKIN:** Bai, bainan ez besterik, eeeh!!!  
**BOHEMIA:** Ez, jauna, ez. A la fe, eztet enia eztenik hunkitzeko usairik...  
**KINKIN:** (*Beretzat*) Bohemia izan behar orretarako...  
**BOHEMIA:** Ontza dakizu zuk, jauna, ze tristea den gure bizia munduan...!!  
**KINKIN:** Bai, bethi arno eta festa...!!! (*Beretzat*)  
**BOHEMIA:** Beti kurri...  
**KINKIN:** (*Beretzat*) Eta beti toki berean...  
**BOHEMIA:** Nehok ostaturik ez eman nahi...  
**KINKIN:** (*Beretzat*) Eta nun nahi artzen...

**BOHEMIA:** Nehok fitzik ez eman nahi...

**KINKIN:** (*Beretzat*) Eta ahal dana artzen...

**BOHEMIA:** Goses hilak...

**KINKIN:** (*Beretzat*) Edo oilloz aseak...

**BOHEMIA:** Egarriz itoak...

**KINKIN:** (*Beretzat*) (*Idos*) Edo arnos anpatuak...

**BOHEMIA:** Arduraz preso atxikiak...

**KINKIN:** (*Bohemiara, kexua...*) Eta ez behin ere lehertuak.... Allo!! Utzi historio-misterio ohiek eta erran egidazu zertan jin ziran...??

**BOHEMIA:** (*Suititzen da*) Orra jauna. Eztakik nik ze potreta dun papel bat oehar dugula ta... zuk konpronitzen duzu dudarik gabe, Jauna, eta potret bat erosten jin niz, bazendu saltzeko...

**KINKIN:** Potreta atheratzen erran nahi duzu...

**BOHEMIA:** Ez, jauna, ez... Erosten...

**KINKIN:** Erosi.. bainan, norena...

**BOHEMIA:** (*Asten da main-gaineko potretak ikhusten*) (*eta bat eskuan artuta*) Ezinuke salduko, jauna, onako bat.

**KINKIN:** Ez olakorik eta ez alakorik. Orrek badu bere jabea eta utzi ori or.

**BOHEMIA:** Ezinuke, zaharño bat, Jauna...???

**KINKIN:** Ez zaharrik eta ez berririk... Erran dutzut, nahi baduzu potreta behar duzula athera...

**BOHEMIA:** Edozoin aski nuke ba, Jauna...

**KINKIN:** Edozoin!!!

**BOHEMIA:** Ze inporta du...

**KINKIN:** Zer??? Eni trufatzen jin zira??? (*Artzen du kadera eta kadera ukhaldika atheratzen dau kanporat*) Ala hemendik fite kanpora.

**BOHEMIA:** (*Atheratzen da*)

## VI

Kinkin eta Pethan

**PETHAN:** (*Sartzen da*) (*Beretzat*) Egun norbaitek klinikara Joan behar badu ere enia izanen da potret athelier au...

**KINKIN:** Bohemia zikin ori...

**PETHAN:** Zerbait makhur izan duzu, Jauna...

**KINKIN:** Eni trufatzen jin da, bohemia zikin ori...

**PETHAN:** Da... prest zira athelier au eni saltzeko???

**KINKIN:** Eztakit... Xantza gehiago ezpadot klientakin...

## VII

Kinkin, Pethan eta Dardara, makhila eskuan

**DARDARA:** (*Kanpotik*) E-u-p...!!!

**PETHAN :** Kliant bat, jauna... Banoa potret batzuk atheratzen... (*Atheratzen da*)

## VIII

Kinkin eta Dardara

**DARDARA:** E-u p!!!

**KINKIN:** (*Atheari buruz, idor*) Aitzina...

**DARDARA:** (*Sartzen da makhila eskuian eta dena dardara...*) Par ka tu ja u na... Hemen bi zi da po tret a the ra tza le a ?

**KINKIN:** (*Idor*) Bai... Zerga biltzale bat zira edo...

**DARDARA:** (*Beti dardara*) Ez ja u na... ez. Na hi nu ke por tret bat a the ra Ze da zun..

**KINKIN:** (*Idor*) Zuri??? Ezta posible!!!

**DARDARA:** No la ez, ja u na...

**KINKIN:** Ezeralako geldi egoiten ahal... Behar dot maxina expresa eta eztot...

**DARDARA:** E go i ten a hal niz , ins tant pat gel di, ja u na...

**KINKIN:** Bai...

**DARDARA:** Ai se, ja u na, ai se...

**KINKIN:** Eta nola zinuke atheratzea... Suhitik ala jarrite...??

**DARDARA:** E mein xe ka de ran gus tu ra ja rri te, ja u na... (*Jartzen da*)

**KINKIN:** Sarri nik abertitzean egonen zira geldi... eh...

**DARDARA:** Za u de tran kil, ja u na... za u de tran kil...

**KINKIN:** (*Ari da maxina preparatzen. Jartzen du ohial beltza burutik*) Ez mugitu orain... eh... So hunat...

**DARDARA:** (*Gelditzen du dardara*)

**KINKIN:** Bat... biga... iru...

**DARDARA:** (*Eroritzen zaiko burua aintzinerat*)

**KINKIN:** Kaka zaharra!!! Plaka bat funditu dautazu...

**DARDARA:** Pe na dot ba, ja u na... Ez ta a rraz e ne fal ta be i zan ba... O rai ko an ba i, ja u na, o rai ko an zi hur niz gel di e go non ni za la..

**KINKIN:** (*Sañatzen du plaka*) So egin hunat... ez mugitu... kasu orai...

**DARDARA:** (*Gelditzen du dardara*)

**KINKIN:** Bat.. biga.. iru..

**DARDARA:** (*Jausten zaiko burua aintzinerat*)

**KINKIN:** (*Zangoakin lurra jota*) Ka ka...!! Bi plaka fundituak...

**DARDARA:** Ze ra i zan da, ja u...

**KINKIN:** (*Kexu*) Zer zera.. Paga eni plakak... eta zoiaz fite kanporat...

**DARDARA:** Pa ga.. ??? Eguberrietan igorriko dautzut zazki bat gerezi.

**KINKIN:** Ez paga... (*Kentzen dio eskuko makhila eta makhila ukhaldika atheratzen du kanporat*)

## IX

Kinkin eta Mattin

**MATTIN:** (*Sartu eta esartzen ditu main ganean erreziho eta potretak*) Or duzuz erreziho eta potretak.

**KINKIN:** Eta nola dakazuz gibelerat???

**MATTIN:** Ez baiziran zuxen...

**KINKIN:** Nola ez zuxen...???

**MATTIN:** Nola??? Potretak eziralakotz klientarenak eta errezihoa gaizki egin dalakotz...

**KINKIN:** Eta sosik gabe jin zira...???

**MATTIN:** Biztan da...

**KINKIN:** (*Penatua*) Bon...

**MATTIN:** Behar dudaz potret batzuk fini... (*Atheratzen da*)

## X

Kinkin bakarrik

**KINKIN:** Obligatua niz athelierra saltzerat... eta berheala... Bestela erre kara joan behar dot... Potretat ixuli... erreziboak ez paga, zergak goititu... Ez, ez ezta posible bisitzea.. Saldu eta kitu...

## XI

### Kinkin eta Gogorra

**GOGORRA:** *(Joiten du athea)*

**KINKIN:** *(Berrenetik)* Aintzina...

**GOGORRA:** *(Joiten du berriz athea)*

**KINKIN:** *(Barrenetik)* Aintzina... aintzina...!

**GOGORRA:** *(Joiten du berriz athea)*

**KINKIN:** *(Barreanean. Beretzat)* Ze deabrukeri da au.. *(Idigiten du athea)*

**GOGORRA:** *(Sartzen da).* Egun un, jauna.

**KINKIN:** Bai zuri ere...

**GOGORRA:** Parkatu, jauna... Pitti bat gogortua niz eta beharko dautazu, pitti bat goraxago mintzatu, plazer baduzu...

**KINKIN:** Bon ontza da... *(Belarrirat gora)* Eta zer nahi zinuen ba...??

**GOGORRA:** *(Eskuia belarrian)* Ah... bai... denpora freskoa da... Ba zer nahi duzu sazoina da...

**KINKIN:** Ez... Eztatut hori galdetzen... *(Belarrirat azkar)* Zer nahi zinuen galdetzen dautzut..

**GOGORRA:** *(Eskuia belarrian)* Nun bizi nizen erran nahi duzu... Ni mendian bizi niz, jauna... mendian...

**KINKIN:** *(Kexatzen ari da)* *(Beretzat)* Ezetz, gaixoa, ezetz... *(Belarrirat azkar)* Nahi zinuen fotografiatu...???

**GOGORRA:** *(Belarrian eskuia)* Urrun...?? Ez, ezta urrun, ez...

**KINKIN:** Jainko maitea!!! Zer dek komedi au!! *(Kexu)* Eztiet deuzik konpreni arazten gizon uneri... *(Azkarki belarrirat)* Zertan jinzira ba...??

**GOGORRA:** *(Eskuiak belarrian)* Kurri...? Bai, Zeiaian ontza kurritzen dot bai.

**KINKIN:** *(Arras kexu).* Ze gizon tresna!! *(Beretzat; Eztot deuzik egiten ahal...)* *(Kexu den gestoak egiten ditu)*

**GOGORRA:** *(Belarrian eskuiak)* Nola, Jauna...?? Bista erran duzu?? Ba, ba... bista ontza dot... egunas ontza ikusten dot.

**KINKIN:** *(Arras kexu)* *(Belarrirat finki)* Eta lo ontza egiten duzu??

**GOGORRA:** *(Eskuiak belarrian)* Ah... bon... Zer nahi nuken galdetzen duzu...??

**KINKIN:** *(Buruakin kiñuak eginda)* *(Beretzat)* azkenian ere... *(Gogorrari)* Bai.. bai... ori bera.

**GOGORRA:** Ene potret bat nahi nuke, jauna.

**KINKIN:** *(Belarrirat)* Bai eta nolakoa nahi zinueke, ba...

**GOGORRA:** *(Eskuiak belarrian)* Norendako...?? Ba, ene alaba ttipiari Ameriketara igorteko.

**KINKIN:** *(Kexu)* *(Belarrirat)* Bainan nolakoa nahi zinuken galdetzen dautzut... handia ala ttipia...??

**GOGORRA:** Ah... ez... Kalifornian da...

**KINKIN:** *(Kexu)* Ka ka... *(Artzen ditu eskuian bi potret, bat handia eta bestea ttipia, eta erakusten dioz erranez)* *(Finki belarrirat)* Hunakoa ala hunakoa nahi zinueke???

**GOGORRA:** Hea unat ikusteko... *(Artzen ditu bihak eskuian eta so eginik)* Aaahh... Xarmantak dira... Familiako norbaitzuz duzuz hunek dudarik gabe...

**KINKIN:** *(Arras kexu)* Bon... bon... *(Kentzen dioz eskutik potretat)* *(Belarrirat finki)* Eta zenbat nahi zinuekez...??

**GOGORRA:** *(Belarrian eskuiak)* Presatua...?? Ez... Ez niz presatua, ez...

**KINKIN:** *(Arras kexu den gestoak egiten ditu)* *(Belarrirat finki)* Zoinbat nahi zinuekezan, galdetzen dautzut... *(Erakusten dioz esku bateko herriak)* Bortz ala *(Gero bi eskuetako herriak erakutzita)* Amar.

**GOGORRA:** Ba... berdinean bortz liberakoa nahiago nuke, bai...  
**KINKIN:** (*Kexu*) Bo, bon, aski da... Jarri hemen kaderan... (*Jartzen karedan maxina aintzinean*)  
**GOGORRA:** (*Jartzen da*) Ba... enintzan batere akhitua, jauna... Ostion ostatuan pausatua nintzan...  
**KINKIN:** (*Kexu*) (*Kinuka ahitzen amaiten dio maxinari so geldi egoiteko*) Egon geldi eta so egin ari maxinari (*Jartzen da bera maxinaren gibelean eta ezartzen du ohial belxa burutik*) (*Beso batekin egiten ditu iru kinu*)  
**GOGORRA:** Irugarren kiñu edo beso ukhaldian Urxinxægiten du  
**KINKIN:** Ajuta...!!! (*Kexu zangoakin lurra jota*) Plaka funditu zautak...!!! (*Artu besotik gogorra eta pusatzen du kanporat erranez*)!! Alo!! zoiáz hemendik kanporat...  
**GOGORRA:** (*Belarrian eskuia esarrita*) Nola, Jauna??  
**KINKIN:** Joaiteko kaporat ete fite... (*Pusatzen du*)  
**GOGORRA:** Bihar erran duzu???  
**KINKIN:** (*Kexu*) Ez bihar eta ez etzi... (*Pusatzen du*)  
**GOGORRA:** Ba... emastea igorriko dot orduan bihar, sosarekin...  
**KINKIN:** (*Kexu*) Ez emasterik eta ez sosik... Ala fuera..  
**GOGORRA:** Agur, Jauna, eta parkatu... (*Atheratzen da*)  
**KINKIN:** Agur bai... eta adio, ene affera, athelier, potret, zerga pagatze eta botiera guziei... Ezta nehor geiago trufatuko enetzaz... (*Atheratzen da*)

## XII

Pethan eta Mattin (*sartzen dira biak*)

**PETHAN:** Ikhusi ahal dek...?  
**MATTIN:** ter??  
**PETHAN:** Ze ontza egon diran Bohemia, Dardara eta Gogorra...  
**MATTIN:** Teatrolari autak dozak irurak.  
**PETHAN:** Errotu diek gure nausia...  
**MATTIN:** Eta zer?  
**PETHAN:** Enia dela athelierra...!  
**MATTIN:** (*Norbait etortzen ahitu balu lez kinu egin da*) Ago ixilik, hemen dok nausia.

## XIII

Mattin, Pethan eta Kinkin

**KINKIN:** (*Sartzen da*) Nun zizte...??  
**MATTIN:** Hemen, Jauna.. Zer nahi zinue...  
**KINKIN:** (*Kexu*) Asea nizela ofizio zikin unetan..  
**MATTIN:** (*Beretzat*) Ezta goizegi...  
**PETHAN:** Prest zira athelierra saltzeko???  
**KINKIN:** (*Kexu*) Nola ez... arras errekarat joana niz eta...  
**PETHAN:** Nik erosiko dautzat...  
**KINKIN:** Bon... Sarri eginen du papera... Agur... (*Atheratzen da*)

## XIV

Mattin, Pethan, Bohemia, Dardara eta Gogorra  
(*Hunek irurok sartzen dira betan*)

**BOHEMIA-DARDARA-GOGORRA:** (*sartzean zoko guzietara so egin da*) (*Irurak betan*) Joan dok...

**MATTIN:** Bai, joan dok, debru zikiña.  
**BOHEMIA:** Ze gizon mokhorra...!!  
**DARDARA:** Ze erroa...!!  
**GOGORRA:** Eta minthua...  
**PETHAN:** Zauzte ixilik... Orai badakizue, enia dela athelier au... Nik erosi dutalako...  
**MATTIN:** Eta ni niz lekhuko...  
**BESTE IRURAK:** Eta guri eskerrak....  
**BOHEMIA:** Bai, nik artuniko buruko kadera ukhaldiai.  
**DARDARA:** Eta nik artuniko bizkarreko makhila ukhaldiai.  
**GOGORRA:** Bai eta, nik artuniko gibelesko ostiko ukhaldiai.

## XV

### Lengoak eta Kinkin

**PETHAN:** Behar diaguk trinkatu... Ekartzak Mattin botella eta basoak...  
**MATTIN:** *(Athera eta ekartzen ditu bortz baso eta botella bat arno)*  
**PETHAN:** Sarri gurekin baskalduko zizte ostatuan.  
**BOHEMIA:** Egun aseko gituk...  
**MATTIN:** *(Betetzen ditu basoak)*  
**DENAK:** *(Basoak eskuian artu eta xin-xin egiten dute erranez)* Ire osagarriako Pethan...  
**PETHAN:** On egin daizuela.  
**DENAK:** *(Edaten dute)*...  
**MATTIN:** To!! Behar diaguk denekin potret bat athera...  
**PETHAN:** Bai eta bereala... *(Ezartzen da maxina gibelean)*  
**MATTIN:** *(Ezartzen ditu beste irurak maxina aintzinean)*  
**KINKIN:** *(Sartzen da)* Ze barraka duzue hemon... *(Hirurai)* Hemen zizte berriz ere, debru zikinok!!!  
**PETHAN:** Nahi zinuek, jauna, athera azkenengo potret au...  
**KINKIN:** Nik?? Ez... ez... Ni asean niz... Ori zuretzat... *(Atheratzen da)*  
**PETHAN:** kiiütrada erdian publiikoari begira)  
**PETHAN:** *(Estrada erdian publikoari begira)*  
Hemen finitu baita gure jostetea  
Agur eta mill-esker publiko maitea,  
Guk nahi izanik ere plazer egitea  
Ez beita beti errex orotan erreuzitzea  
Othoi arren egizue utzak estaltzea  
Eta esku zartarto berok zuxenak zariztatzea.